

# Literaturazale amorratuen lehenengo urratsak

Zeintzuk dira umeak literaturara hurbiltzeko modurik eraginkorrenak?

Seme-alabak eskola garaian dituzten gurasoen kezkarik nagusienetako bat da nola hurbildu haurrak irakurketara modu atsegin eta gozagarri batean. Gu guztiok umetan hasi ginen irakurtzen, etxean, eskolan, liburutegian, parkean... Beharbada, gehienok ez dugu gogoratuko zein izan zen gozarazi egin zigun lehenengo liburuxka, ez entzun genuena, ez irakurri genuena. Erromantikoek agian apalategiko leku estrategikoan izango dute haurtzaroan biziki atsegin zuten ipuina, ikaragarri ondo zainduta, gainera. Literaturarekin barre zein negar egin dugu, eta gaur egun ere bai; mundu berrietara bidaitu eta ikasi egiten dugu. Heldu gehienek liburua ditugu bidelagun; baina nola kutsatu diezaikegu gure literaturarekiko pasioa hurrengo belaunaldiei?

Haurrei ipuinak kontatzea izan daiteke lehenengo urratsa. Ipuin kontalarien saioak antolatzen dira maiz, bai eskoletan, bai liburutegietan. Edonola ere, denok badakigu zein onuragarria den etxeko txikiari ipuinak kontatzea: gurasoekin lotura afektiboa eraikitzeko bidea izateaz gain, emozioetara begiratzeko aukera ematen die; hitza jartzen die barnean nabaritzen dituzten sentimenduen.

Ipuinak bizitzaren ispilutzak izan daitezke, eta gure ekintza guztiak ondorioak dituztela erakutsi diezaiakete. Horrez gain, irudimena eta jakin-mina pizten dituzte, era dibertigarrian edukia ikasteko bidea baitira. Honen harira, Guraso.eus web-orriko artikuluko batek zera dio: "Irakurri ditugunak gurekin datoz betirako, kontzienteko zein inkontzienteko izan. Baina entzun ditugunak, kontatu ala irakurri dizkigutenak, bihotzean daramatzagu betirako".

## Liburu egokiak eta dibertigarriak

Hurrengo urratsa izango litzateke kalitateko liburua eskaintzea haurrei; batik bat, gai egokiak bezain interesgarriak aukeratzea. Gogoz eta gozatu irakurtzean askoz errazagoa da irakurketaren onurak lortzea. Zabala eta anitza da haur literaturan dagoen katalogoa, eta argitaletxe askorentzat jomuga dira etxeko txikiak. Adibide gisa Begiko dugu, Zubia-Santillana argitaletxeak iaz martxan jarritako sigilu berria, haurren eta gazteen irakurletasuna sustatzeko. Euskara hutsean idatzitako liburuek osatzen dute bere katalogoa, baita lehenengo Alfaguarako titulu ezagunen itzulpenek ere.

Gai egokiak aukeratzeaz gain, pertsonaiei ere erreparatu be-



*Bizenta txiki*, euskarazko lehen emakume idazlea irudikatzen du Yolanda Arrieta idazleak. Enrique Morenteren ilustrazioa

har diegu. Umeak liburuen protagonistarekin identifikatzen ohi dira; beraz komenigarria izan daiteke istorioaren pertsonaia nagusiek gure seme-alaben antzera adina izatea; kezka eta desira berdintsuak izango dituzte, ziur asko. Ildo honetan, Noelia Lorenzo Pino idazleak eta Alicia Cebrian marrazkilariek, biak ala biak irundarrak, argitaratu berri dituzte *Ane eta Moon* bildumen lehenengo bi ipuinak, Erein argitaletxearen eskutik: *Ane eta Moon, ilargira bidaia* eta *Ane, Moon eta burbuilak*. Ane eta bere hartz txikia Moon adiskideak dira, eta beti ibiltzen dira elkarrekin. Gauero, begiak ixten dituztenean, leku askotara joaten dira bidaian, gauza ugari ikasten dituzte, eta, zenbaitean, izaki berezi bilakatu dira. Abentura dibertigarriak bezain hezigarriak lantzen dituzte, hala nola, adiskidetasuna zein garrantziko den, eta ezetz esaten jakitea zein beharrezkoa den. *Zazpi* eta bederatzire bitarteko umeentzako ipuinak dira, marrazki zoragarri osatuta daudenak. 32 orrialde ditu lan bakoitzak.

Bestetik, haurrekin balioak eta emozioak euskaraz lantzeko aukera eskaintzen du Begoña Ibarrola bilbotarrak. Desclée argitaletxeak idazlearen zortzi liburua euskaratu ditu *Balioa naiz*, *emozia naiz* bilduman. Haurren adimen emozionala lantzeko proposak izan daitezke. Ibarrolak balio eta emozio jakin bat jorratzen du liburu bakoitzean:



adiskidetasuna, empatia, poza, lankidetzeta eta ausardia, besteak beste. Diseinua eta ilustrazioak ere zaindu dituzte. Sei urtetik gorako haurrei zuzenduta daude, eta gida didaktiko lagungarriak izan daitezke familientzat zein hezitzaileentzat.

Ipuin tradizionalen eta gehie-

netan sexisten aurkako joera agertu berri da haur eta gazte literatura arloan, eta hainbat bilduma eta liburu argitaratu dira azkenaldian, emakumeen garrantzia aldarrikatzen dituztenak. Yolanda Arrieta *Bizenta txiki* ipuina aipatu genezake, horietako bat nabarmentzearen. Euskarazko lehen emakume idazlearen haurtzaroa irudikatu du Arrieta, Enrique Morenteren ilustrazioez lagunduta. Sei urtetik gorako haurrei zuzenduta dago, eta euskal literaturan gutxi arte itzalean egon den emakume argiaren istorioa jorratzen du.

Kalitateko edukiak eskaintzeaz gain, badaude haurren irakurketa sustatzeko modu bitxiak ere,

hain zuzen ere, txakurren laguntza baliatuz. Txakurrek oraindik ez dute irakurtzen ikasi, baina irakurketara animatzeko gaitasuna dutela erakutsi dute GuKAn irabazi-asmorik gabeko elkarterko kideek. Jolasaren bitartez eta *Lukas* eta *Dua* Golden Retriever txakurren motibazioarekin, umeek ordubet-

ko irakurketa saioa egiten dute. Konexioa erabatekoa da txakurren eta haurren artean; hori da, azken finean, elkarte bilbotarraren helburu nagusia.

## Sormena: ipuin lehiaketak

Ipuinak entzutea eta irakurtzea dira igo beharreko bi mailak hirugarrenera heltzeko, sormenera, hain zuzen ere. Oinarria dutenean, umeak gai dira bere istorioak sortzeko. Hala egiten dute Elkar argitaletxeak urtero antolatzen duen ilustrazio eta ipuin lehiaketan. Dagoeneko zabalik dago 11. edizioa, hiru modalitate izango dituen haur eta gazteen adinaren arabera: ipuina ilustratu, ilustrazioa ipuin bilakatu eta komikia edo bineta sortu. Haurrek, eskolako ikasurtearen arabera, hiru maila hautetako batean parte hartzeko aukera izango dute: A maila: HH 4 eta 5 (eta txikiagoak), B maila: LH 1 eta LH 2, eta C maila: LH 3 eta LH 4. Lehiaketaren helburua da haurren eta gazteen artean irakurletasuna eta sormena bultzatzea. Lan guztiak apirilaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira. Irabazleek hainbat sari eskura dituzkete, esaterako, BQ Aquaris M8 tableta, jolas hezitzaile sorta ederra eta 60 euroko opari txartela. Gainera, sari zoragarriak izango dira ikasgela guztietentzat.

Argi dago, aurkeztutako hiru urratsak ez direla hutsenezinako moduak izango umeak literaturara hurbiltzeko; baina, saiatzearen ez da ezer galtzen. Umei laguntzen badiugu imajinario-riatea zabaltzen eta haren bidez sentitzen, askoz pozago haziko dira.

Marta Goikoetxea

“Gogoz eta gozatu irakurtzean askoz errazagoa da irakurketaren onurak lortzea”

“Oinarria dutenean, umeak gai dira bere istorioak sortzeko”